

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

6419

255/2021 DEKRETUA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko eta sozietatearen estatutueta 6. artikulua aldaketaren aldeko botoa emateko.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 110.1 artikuluan ezartzen denez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da dekretu hori; baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Era berean, EOLen 111.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta instituzionalaren zuzeneko edo zeharkako titulartasunpekoak diren akzioen ordezkariak onartu behar dituzte sozietate-estatutuak, eta Gobernu Kontseiluak emango du horiek aldatzeko baimena.

Kapitala ordezkatzeko duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak, doako eskuraketa ez baldin bada behinik behin, nahitaezkoa izango du sozietatearen xedea adieraztea, baita Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratzeko horretan zuzenean nahiz zeharka izango duen partaidetzaren ehuneko ere.

Azaroaren 29ko 460/1994 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena eman zitzaion «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» erantzukizun mugatuko sozietateko kapital-gehikuntzan parte hartzeko. Harrezkero, Euskal Autonomia Erkidegoak ehuneko berrogeita hamarrekoko partaidetza du sozietate horren kapitalean; Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, gainerako ehuneko berrogeita hamarrekoko.

«Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» sozietatearen xedea edozelako arte-lan eta -sorkuntza motak eskuratu eta ustiatzea da, baita arte-erakusketak eta -erakustaldiak antolatzea ere.

Sozietatearen ez-Ohiko Batzar Orokorak 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran erabaki zuen, besteak beste, kapital-gehikuntza bat proposatzea, beharrezko baliabideak lortzeko xedez, eta horiei esker ekin ahal izateko Bilboko Guggenheim museoaren bilduma propioko eskuratzeko-programari 2020ko ekitaldian zehar. Proposamen horrek hau dakar: Eusko Jaurlaritzak sozietatearen beste 1.663 partaidetza harpidetzea 999.479,63 euro guztira, «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» sozietatearen kapitalean duen partaidetza-ehunekoari eutsi diezaion. Halaber, sozietatearen estatutueta 6. artikulua aldatzea erabaki zuen, sozietatearen kapitalari buruzkoa.

1.663 partaidetza horiek harpidetzeko kreditu egoki eta nahikoa dagoenez, eta lehen paragrafoan adierazitakoarekin bat, Gobernu Kontseiluaren baimena behar da sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko.

2021eko abenduaren 28a, asteartea

Horretaz gain, kapital-gehikuntzaren ondorioz, beharrezkoa da «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» sozietatearen estatutuen 6. artikulua aldatzea, sozietatearen kapitalari dagokiona, hain zuzen. Gehikuntzaren ondoriozko zenbateko berria sartuko da artikulua horretan.

Hori dela eta, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte har dezan, 999.479,63 euroko zenbatekoarekin, sozietatearen batzar nagusiak adostutako gehikuntza osoari dagokionez; horretarako, sozietatearen 1.663 partaidetza eskuratuko ditu –bakoitzaren balio nominala 601,01 euro– ordainketa bakarrean.

EAEko Administrazio Orokorrak bere gain hartutako partaidetza sozialen balio nominal osoa 2021eko abenduaren 31 baino lehen ordainduko da, eskudirutan eta Europako moneta erkidean.

Gehikuntzaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen kapitallean 58.157.934,67 euroko partaidetza izango du, 96.767 partaidetzarekin. Kapital sozialaren % 50eko partaidetza izango du, eta beste % 50a Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio. Guztira, «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» enpresaren kapital soziala 116.315.869,34 eurokoa izango da, eta guztira 193.534 partaidetza izango ditu.

2. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetzen ordezkariari onar dezan «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» sozietatearen estatutuen 6. artikulua aldatzea, kapital-gehikuntzari aipatutako gehikuntzaren ondoriozko kapital sozialaren zifra berriari behar bezalako idazketa emanaz.

3. artikulua.– Ahalmena ematea Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta idazkariari, bai eta edozein kontseilariri ere, notarioaren aurrean ager dadin eta aurreko erabakiak publiko egin ditzan, horretarako beharrezkoak diren adierazpenak eginez eta edozein akats material zuzenduz. Horretarako, beharrezkoak diren agiri publiko eta pribatu guztiak sinatuko dira, eta ahalmena izango dute, bereziki, inskripzioaren xede diren zuzenketa-, argiketa- edo zuzenketa-eskriurak egiteko, bai eta sozietatearen erabakiak hartzeko ere.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.